

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO
URTEKARIA

2.zk 2008
3,80 €

**SORGINKERIA
DURANGOKO
MERINDADEAN**

**GARAI,
ATALAYA DE LOS
ZUBIAURRE**

**FUSILADOS
DEL FRANQUISMO**

ROCK LOCAL



DURANGOKO UDAL ARTXIBOA

TESTUA: JOSÉ ANGEL OROBIO-URRUTIA ARGAZKIAK: TXELU ANGOITIA

UDAL Artxihoaren eginkizuna da Udalaren dokumentu-ondarea gordetzea eta zaintzea. DUaren (Durangoko Udal Artxiboa) xedea da Udalak sortutako eta Udalera bidalitako agiriak biltzea, antolatzea, zaintzea eta zabaltzea. Hori eginez, bi zerbitzu eskainiko lirateke: alde batetik, Udalaren Sailei zerbitzua ematea, kudeaketa administratiboari lagunduz; eta, beste alde batetik, herritar guztiei informazioa eskaintzea, euren eskubideen berri izan dezaten eta historiaren ikerketa sustatuz.

HISTORIA

Artxiboari buruzko lehenengo aipamenak XVI. mendekoak dira. San Migel egunean ohitura zen Erregimentua (alkatea eta zinegotziak) aldatzea. Aldaketan, aurreko urteko Erregimentuak herriko bandera, zigilua, danborrak eta artxihoaren giltzak eman behar zizkion Erregimentu berriari.



1554ko sutea


Durangon 1554an gertatutako sutearen ondoren, ondare asko galtzeaz gainera, ordura arte gordetako funtsezko dokumentazioa hondatu zen. Aurreko erabaki- eta kontu-liburuak hondatu ziren. Hala ere, zorionez, Erdi Aroko agiri zaharragoen zati bat gorde dugu, Andra Mariko elizan zeudelako.

Sute hartan kutxa banaka bat baino ez zen onik atera. Kutxa horietan pribilegioak, errege-hornidurak, jabetza-agiriak, oroitza-txostenak eta auziak gordetzen zituzten. Kutxetan akta- eta kontu-liburuak sartzen hasi ziren. Horietan, udalbatzetako akordioak eta gastuak ez zik, herrian agintaldi bakoitzean izandako gastuak eta diru-sarrerak jasotzeari ekin zioten.



Lehenengo inbentarioa

Gorde dugun lehenengo inbentarioa 1519ko maiatzaren 24koa da. Inbentario hark “Durangoko hiribilduko kontzejuko kideek ondorengo arduradunei utzitako eskritura eta material guztien” berri ematen du. Ondoren, 1568an, Joan Ibañez Elorriagari eman zioten beste inbentario bat egiteko ardura, gero eta paper gehiago pilatzen zutelako eta behar zena bilatzea lan zaila zelako. Inbentario hartan “eskriturak, pribilegioak, hornidurak eta salbuespen- zein askatasun-agiriak jaso zituen.



Erdi Aroko agiriak

Inbentario horietan aipatutako agiri gehienak gure artxiboan daudela eta, ia gehienak, egoera onean daudela ikusi dugu. XV. eta XVI. mendeetako agirien transkripzioa kontsultatzeko aukera dago “Colección Documental del Archivo Municipal de Durango” izeneko lau tomoetan. Lan hori Eusko Ikaskuntzak argitaratu zuen 1989an, Fuentes Documentales del País Vasco bilduman. 400 agirik hainbat gairi buruzko argibideak ematen dizkigute: herriko bizimodua, herriaren eta Merindadearen arteko harremana, herriaren eta Korrejidorearen artekoa, mugak, lurraldea



dela-eta inguruko elizateekin izandako liskarrak, interes komunak babesteko sortutako auziak, eguneroko zereginen ordenantzak, eta abar. Aipagarria da IV. tomoa, 1453an hasitako auzi bati buruzkoa delako oso-osorik. Auzi haren arrazoia zen “Bernako etxea hartu, erre eta amildu” izana.

1612ko inbentarioa

1612ko otsailaren 24ko Udalbatzak artxiboaren inbentario osoa egitea erabaki zuen, “ordura arteko desordenari aurre egiteko”. Lan hori Domingo Gopegiri eman zioten. Urte hartan bertan “Justiziak eta herriko Erregimentuak egindako paper- eta agiri-inbentarioa” gordetzen dugu. Halaber, Gopegiri eskatu zioten Alkateek eta zinegotziek urteen buruan iruzurra eginez sartutako agiriak garbitzea. Artxibozainari izan ezik, gainerako pertsona guztiei galarazi egin zieten gordetako paperak eskuratzea. 1629ko irailaren 1eko udalbatzan Udalak berak ere diligentziak egin behar izan zituen artxiboan sartu eta herriaren liburu eta pribilegio batzuk aztertzeke. Gopegiren ondoren, Migel Arteagak eta Frantzisko Gesalak hartu zuten haren lanpostua.

Zaindutako paperak 1634. urtean eraman zituzten lehen aldiz udaletxera. Irailaren 30eko udalbatzan artxiboa eratzea erabaki zuten, Andra Mari elizako paperak bertan gordetzeko. Hurrengo urtean “udaletxeko aretoko horma botatzea erabaki zuten, paperak gordetzeko artxiboa bertan egiteko”. Hala eta guzti, 1640ra arte ez zituzten agiriak lekuz aldatu.

Diego Lorentzo Urkizu, “Durangoko jainkozalea”

Ehun urteren ondoren, 1735ean, Udala berriro konturatu zen agirien egoera txarraz. Izan ere, agiri batzuk iruzurra eginez sartzen zituzten, beste batzuk lapurtu egin zituzten, baten batzuk hondatuta zeuden eta, auziren bat zegoenean, ezin aurkituta ibiltzen ziren. 1736ko maiatzean Pedro Bassetari paper batzuk itzultzeko agindua eman zioten; alegia, artxiboan egon beharrean, berak gordeta zeuzkan paperak itzultzeko. Halaber, “aurrerantzean agiriak ordenatuta eta ondo zainduta egon zitezen neurriak” hartzea erabaki zuten. Handik urte batera, Diego





Lorentzo Urkizu Gisasa hartu zuten artxibozain. Gizon hari "Durangoko jainkozalea" (El devoto durangués) esaten zioten. Uribarriko Amabirjinaren bederatzurrrena egin zuen; euskaraz emandako bertsoak ere sartu zituen lan hartan. Ondare dokumentala handitzea herrirako garrantzitsua zela konturaturik, Urkizuk herriarekin zerikusia zuten agiriak batzeari ekin zion (Ahaldun Nagusien, Korrejidorearen eta Jaurerriko Sindikoen aginduak, politikaren eta ekonomiaren ingurukoak). Agiri horiek zenbait paper-sortatan gorde ditugu gaur egun arte. 1744. urtera arte eutsi zion lanpostuari. Ordurako, bere esku egondako agirien inbentario berria egin zuen.

Nahiz eta oso gizon erlijiosoa izan, istilu gogorra izan zuen garai hartako kleroarekin. 1740ko otsailean, Udalak Joan Bautista Villar abokatuari eman zion herria babesteko ardura. Kontua da, Eliza-kabildoak herriko artxiboko ermita- eta eliza-liburu guztiak eskuratu nahi zituela, ostantzean Diego Lorentzo Urkizu artxibozaina eskumikatuko zuen. Artxiboan gorde ditugun liburu horietan (fabrikakoak esaten diegu) Andra Mariko, Santa Anako, ermitetako eta herriko antzinako kofradietako kontuak ageri dira. Udalak, elizen patronoa den aldetik, kleroaren soldatak eta elizetako lanak ordaintzen zituen. Ondoren, horien berri ematen zuen fabrika-liburu horietan. Ordainketarako dirua herritarrek ematen zuten, zergen eta derramen bidez. Liburu horietan ondasunak ere inbentariatzen zituzten; horri esker jakin zitekeen ondareak txarto erabili zituzten eta salerosketan iruzurra egin zuten ala ez.

Martxoan, berriro ere Urkizuren alde egitea erabaki zuten. Urkizu eskumikatuta zegoen ordurako. Handik gutxira, Udalak irabazi egin zuen Kabildoaren aurkako auzia. Ondorioz, eskumikua indarririk gabe utzi zuten eta liburuek leku egokian jarraitzen zuten.

XIX. mendea

Frantziarren aurkako gerran, Santa Luziako baserri batean gorde zituzten liburuak eta paper-sortak, hondatu ez zitezten. Gauza bera gertatu zen bigarren Karlistadan. Leku aldaketa horien eraginez, agiri batzuk galdu eta hondatu egin ziren. Gauzak horrela, XIX. mendean zehar Udalak behin baino gehiagotan esan zion pregoilariari honako dei hau zabaltzeko: herriko agiriak dauzkaten herritarrek (eta horren berri dakitenek) "artxiboan ez daudela konturaturik, itzuli edo eman diezazkietela agiriak artxiboaren giltzak dauzkateni (hiruetako edozeini), dena delako erabakiak hartu aurretik".



José María Larrakoetxea

Durangoko artxiboaren historia hankamotz geratuko litzateke José María Larrakoetxea Bengoaren ekarpena aipatuko ez bagenu. Larrakoetxeak berak dio Cuaderno de Historia Duranguesa aldizkarian, gerra zibilaren ondoren hartu zuela artxiboaren ardura. 1937an, Mola jenerala Durangora etorri baino egun batzuk lehenago, herriko agintariak artxiboko paperak ateratzea eta Santanderrera kamioiz eramatea erabaki zuten. Gerra amaitu ondoren, artxiboa herrira ekarri zuten berriro. Dena dela, litekeena da paper-sorta batzuk bidean galtzea. Larrakoetxeak (Udaleko fondoan interbentorea garai hartan) eta Pablo Ortuetako egoera honetan aurkitu zituzten: “Udaletxe zaharreko ganbara kutxaz beteta zegoen eta kutxetako agiriak haizeek eta haizeteek astintzeko moduan zeuden”. Larrakoetxeak, fondoak garbitu, antolatu eta katalogatu ez ezik, Durangoko historiari buruz idazteari ere ekin zion. Bera izan zen lehenengoetakoa artxiboko jatorrizko agirietan oinarrituta idatzi zuena. Lan haren emaitza dira aldizkarietan eta jai-egitarauetan argitaratutako artikuluak, eta, batez ere, Kurutziaga bilduman argitaratutako “Noticias históricas de la villa de Durango” deritzen bost tomoak. 1985. urtean Etxezarreta Jauregira, Arte eta Historia Museoaren egoitzara hain zuzen ere, eraman zituzten fondo “historikoak”. Berriro antolatu eta katalogatu zituzten, inbentario berria eginez. Besteak beste, Erdi Aroko dokumentazioa ere (artearen argitaragabea) transkribatu zuten. XVI. mendetik XX. mendera arteko akta-liburuak ere hustu egin zituzten. Une honetan lan hori burutzen ari gara.

FONDOAK



Bi artxiboak

Durangoko udal artxiboa bi ataletan bereiztuta dago gaur egun.

Alde batetik, administrazio-artxiboa dago, Udaletxean bertan kokatuta; eta beste alde batetik, historia-artxiboa dago, Arte eta Historia Museoan kokatuta 1985. urteaz geroztik. 2000. urtean, udaletxearen eraberritze-lanak zirela-eta, leku bakarrean gorde genituen administrazio-agiri guztiak. Dokumentazio hura hainbat sailetan sakabanatuta egon zen ordura arte. Era horretan, dokumentazio-sarrerak eta -transferentziak garrantziaren arabera

eta ordenan bideratzen ditugu; gordetzeko eta kentzeko arauak ez ezik, eskuratzeko eta kontsultatzeko baldintzak ere ezarriz.

Akta- eta kontu-liburuak

Durangoko historia-artxiboa Euskal Herriko garrantzitsuenetako bat dela esan daiteke. Fondo aberatsa izateaz gainera, bakarrenetakoa da XVI. mendetik aurrera akta- eta kontu-liburu sail osoak dituen.

Lehenengo akta-liburua 1553ko irailean hasten da, nahiz eta jasotako azkenengo saioa 1554ko ekainekoa izan. Liburu hori eskribauaren etxean egongo zen segur aski eta, ondorioz, ez zuen sutearen kalterik nozitu. Hurrengo liburua 1567ko urrian hasten da. Antzinako osoko bilkura hartan hasi eta 1980ra arteko udal-erabaki guzti-guztiak jasota daude 60 liburutan.

Lehenengo kontu-liburua 1550. urtekoa da. 1824ra arte, Udalaren diru-sarrerak eta gastuak ez ezik, kontsumo-produktuei ezarritako arielak ere hamabost liburutan jasota daude. Gainera,



1755. urtetik aurrera libramientuak (gastu guztien ordainketa-agiriak) ere gordetzen hasi ziren. Joan zen mendearen 80ko hamarkadara arteko sail osoa daukagu Museoan (bigarren Karlistadakoak eta gerra zibilekoak izan ezik).

Fabrika-liburuak

Aipamen berezia merezi dute arestian aipatutako herriko elizetako, ermitetako eta kofradietako fabrika-liburuak. Uribarriko Andra Mari elizaren 9 kontu-liburu daukagu, 1577tik 1851ra artekoak dira; Santa Anaren bost liburu, 1560tik 1793ra artekoak; Tabirako San Pedrorenak, bi liburu 1584tik 1676ra artekoak eta bat 1739tik 1801era artekoa. Herriko laugarren elizarena, Magdalenako Andra Mariaren hiru kontu-liburu daukagu; 1690tik 1810era arteko kontuak jasotzen dituzte. Beste fabrika-liburu batzuk ere badaukagu: Sakramentu Guztiz Santuaren Kofradiarenak (1670-1844), ermitenak (Axpeko Santa Luzia, San Roke eta San Fausto) eta kofradienak (Arimak, Vera Cruz, San Martin Loriatsua, Arrosarioko Amabirjina, Mikeldiko San Bizente eta Ospitale Santua).





Obra-txostenak

XIX. mendearen azkenetan emandako agindu baten arabera, obra berria egiteko eta eraikin bat zaharberitzeko baimena eskatu behar da Udalean, burutu nahi den lanaren marrazkia, krokisa eta planoak aurkeztuz. Hori dela-eta, administrazio-artxiboan gorde ditugu 1877tik gaur egun arte eraikitako etxe gehienen planoak. Milaka txosten dira. Horietako batzuek balio handia dute historiaren aldetik, desagertutako eraikinen erreferentzia bakarra direlako.

Karpeta batzuen bolumena ikusirik, garrantzitsuak dira honako hauek: Gorte-, udal- eta probintzia-hauteskunderi buruzkoak, memorialak (erakundeek eta gizabanakoek Udalera bidaltzen dituzten eskutitzak); kintei eta soldaduskari dagozkien karpetak; benefizentziari, osasunari, jaiei, biztanleen erroldei dagozkienak, eta beste hainbat.

Udalekoa ez den dokumentazioa

Udalekoa ez den dokumentazioaren artean, bataio-, ezkontza- eta heriotza-liburuak dauzkagu mikrofilm formatuan. Informazio hori Andra Mariko, San Anako eta lurretako San Migeleko elizei buruzkoa da. Halaber, formatu berean, Indietako Artxiboko hainbat dokumentazio dago, Frai Juan de Zumarragari eta Frantzisko de Ibarrari buruzkoa gehienbat.

Azkenik, Erdi Aroko dokumentazioaren garrantzia azpimarratu behar da. Arestian esan dugunez, informazio hori Eusko Ikaskuntzaren liburutetan aurkitu daiteke.

Erronka bat: digitalizazioa

Jatorrizko agiriak zaintzeko eta eskuragarritasuna zein kontsulta errazteko asmoz, agiriak digitalizatzen hasi gara. Lehenengo fasean osoko bilkuren Akta-liburuak digitalizatzeari ekin diogu. Oso sail adierazgarria eta informazio handikoa da. 1553tik 1832ra arteko liburuak digitalizatu ditugu dagoeneko. Udalaren web orrian jarriko ditugu, edozeinek aukera izan dezan 12.000 irudi inguru aztertzeko (irudi bakoitzak liburutako folio bat islatzen du). Gainera, kontsulta ez da egingo kronologikoki soilik; kontsulta errazteko, datu-base bat izango du, bilkura bakoitzean landutakoa laburtuta eskainiko duena.

Bigarren fasean, artxiboan gordetako Erdi Aroko dokumentazioa digitalizatzeko asmoa dugu. Horrek ere 18.000 irudi inguru izango ditu eta, besteak bezala, datu-basea izango du kontsulta errazteko.

Hurrengo faseetan saiatuko gara erabiltzaileari artxiboko gainerako dokumentazioa digitalizatuta eskaintzen.

Jose Angel Orobio-Urrutia